Foru Gobernu Kontseiluak 2019ko azaroaren 5eko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

Extracto de las disposiciones aprobadas por el Consejo de Gobierno Foral en sesión ordinaria celebrada el 5 de noviembre de 2019

**- Foru dekretua**:

**- Decreto Foral:**

KULTURA ETA KIROL SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y DEPORTE

Foru Gobernu Kontseiluaren 48/2019 Foru Dekretua, azaroaren 5ekoa. Onestea Gazteriaren Foru Erakundeak sustatutako ikastetxeen programei aplikatu zaizkien prezio publikoak eta araudia.

Decreto Foral 48/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar los precios públicos y la normativa aplicables a los programas de centros escolares promovidos por el Instituto Foral de la Juventud.

**- Erabakiak:**

**- Acuerdos:**

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, INNOVACIÓN Y RETO DEMOGRÁFICO

Foru Gobernu Kontseiluaren 685/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Onestea dirulaguntza ematea Lycolab SLL eta Escapa del Norte SLL enpresei, gizarte eremuan lan sozietateak eta sozietate kooperatiboak sustatzeko eta eratzeko laguntza lerroaren barruan.

Acuerdo 685/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar la concesión de una subvención a “Lycolab, SLL” y a “Escapa del Norte, SLL” dentro de la línea de ayudas para el apoyo a la promoción y constitución de sociedades laborales y cooperativas en el ámbito social.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

Foru Gobernu Kontseiluaren 686/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Sas Institute SAU sozietateari esleitzea software tresnak eskuratu eta ezartzea, zerga figuren eta iruzurraren jokabide ereduak aztertzeko, eta zerga iruzurrarekin lotutako datuak aztertzeko prozedura eredu bat ezartzeko zerbitzuak.

Acuerdo 686/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Adjudicar a "Sas Institute, SAU" la adquisición e implantación de una solución integrada de herramientas software para el estudio de patrones de comportamiento de las figuras impositivas y el fraude además de los servicios de implantación de un modelo de Procedimiento de Analítica de Datos para el fraude fiscal.

Foru Gobernu Kontseiluaren 687/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Onestea 40/2019 konpromiso kredituaren transferentziaren espedientea,

Acuerdo 687/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar el expediente de transferencia de crédito de compromiso

46.000,00 euroko zenbatekoaz, “Informatika Programak AKSA” partida funtsez hornitzeko, Nekazaritza Sailak hala eskatuta.

40/2019, por importe de 46.000,00 €, para dotar de fondos la partida “Programas Informáticos CCASA”, solicitado por el Departamento de Agricultura.

Foru Gobernu Kontseiluaren 688/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Onespena ematea konpromiso kreditua 2019. urtealditik 2020. urtealdira birbanatzeko 41/2019 espedienteari, 65.219,00 euroan, gastuen egoerako “Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Arloko Lurralde Plana” partidan, Ingurumen eta Hirigintza Sailak hala eskatuta.

Acuerdo 688/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar el expediente de redistribución de crédito de compromiso 41/2019, por importe de 65.219,00 euros, de la anualidad 2019 a la anualidad 2020, en la partida del estado de gastos “Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas e Itinerarios Verdes”, solicitado por el Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo.

Foru Gobernu Kontseiluaren 689/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Onestea 121/2019 kreditu transferentziaren espedientea, 10.000,00 euroko zenbatekoaz, “Abokatu defentsa eta ordezkaritza profesionalak, eta auditoretzak” partida funtsez hornitzeko, Lurralde Orekaren Sailak hala eskatuta.

Acuerdo 689/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar el expediente de transferencia de crédito 121/2019, por importe de 10.000,00 euros, para dotar de fondos la partida “Defensa Letrada y Representación Profesional y Auditoría”, solicitado por el Departamento de Equilibrio Territorial.

Foru Gobernu Kontseiluaren 690/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Onestea kreditu transferentziako 144/2019 espedientea, 15.000,00 euroan, funtsez hornitzeko Komunikazioa izeneko partida, Diputatu Nagusiaren Sailak hala eskatuta.

Acuerdo 690/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar el expediente de transferencia de crédito 144/2019, por importe de 15.000,00 euros, para dotar de fondos la partida “Comunicación”, solicitado por el Departamento de Diputado General.

Foru Gobernu Kontseiluaren 691/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Onespena ematea 148/2019 kreditu transferentziaren espedienteari, 59.834,00 euroan, funtsez hornitzeko “AEPI - Azpiegitura nagusia. AKK” eta “Beste desjabetze batzuk” izeneko partida sortu berriak, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak hala eskatuta.

Acuerdo 691/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar el expediente de transferencia de crédito 148/2019, por importe de 59.834,00 euros, para dotar de fondos las partidas “PICA Infraestructura Principal C.C.A.” y “Otras Expropiaciones”, de nueva creación, solicitado por el Departamento de Infraestructuras Viarias y Movilidad.

Foru Gobernu Kontseiluaren 692/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Onestea 153/2019 kreditu transferentziaren espedientea, 9.890,58 euroko zenbatekoaz, “Kultura hedatzeko eta zabaltzeko ekintzak” partida funtsez hornitzeko, Kultura eta Kirol Sailak hala eskatuta.

Acuerdo 692/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar el expediente de transferencia de crédito 153/2019, por importe de 9.890,58 euros, para dotar de fondos la partida “Acciones de Extensión y Difusión Cultural”, solicitado por el Departamento de Cultura y Deporte.

Foru Gobernu Kontseiluaren 693/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Onestea 161/2019 kreditu transferentziaren espedientea, 50.000,00 euroko zenbatekoaz, “Kontrol eta ikuskatze lanak” partida funtsez hornitzeko, Nekazaritza Sailak hala eskatuta.

Acuerdo 693/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar el expediente de transferencia de crédito 161/2019, por importe de 50.000,00 euros, para dotar de fondos la partida “Controles e Inspecciones”, solicitado por el Departamento de Agricultura.

Foru Gobernu Kontseiluaren 694/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Onespena ematea aurrekontua aldatzeko hainbat espedienteri, funtsez hornitzeko “Suhiltzaileen ibilgailuak mantentzea” eta “Suteen aurkako ekipoak” partidak, Lurralde Orekaren Sailak hala eskatuta.

Acuerdo 694/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar diversos expedientes de modificación presupuestaria para dotar de fondos las partidas “Mantenimiento Vehículos Bomberos” y “Equipos contra Incendios”, solicitados por el Departamento de Equilibrio Territorial.

Foru Gobernu Kontseiluaren 695/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Onespena ematea 12/2019 kreditu transferentziaren espedienteari, 17.260,00 euroan, funtsez hornitzeko “Telefono bidezko komunikazioak eta posta” eta “Zerbitzuak ematea” izeneko partidak, Gazteriaren Foru Erakundeak hala eskatuta.

Acuerdo 695/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar el expediente de transferencia de crédito 12/2019, por importe de 17.260,00 euros, para dotar de fondos las partidas “Comunicaciones Telefónicas y Correos” y “Prestación de Servicios”, solicitado por el Instituto Foral de la Juventud.

LURRALDE OREKAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE EQUILIBRIO TERRITORIAL

Foru Gobernu Kontseiluaren 696/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Onestea epez kanpo entregatzea tokiko zenbait erakunderi emandako zuzeneko laguntza batzuen egiaztagiriak (Arabako Lurralde Historikoko udalerrietako despopulazioa saihesteko programaren barruan eskatu zituzten dirulaguntza horiek).

Acuerdo 696/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar la entrega fuera de plazo de los documentos justificativos de algunas de las ayudas directas abonadas a ciertas entidades locales que solicitaron subvención dentro del programa de ayudas para evitar la despoblación en los municipios del Territorio Histórico de Álava.

Foru Gobernu Kontseiluaren 697/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Onespena ematea Korresko Administrazio Batzarrari diruz lagundu zaizkion jarduketak gauzatzeko epea luzatzeari. Dirulaguntza horiek Arabako toki erakundeen gastu arrunta murrizteko eta karbono dioxidoko emisioak murrizten laguntzeko kanpo argiteriaren sektorean ekintzak egiteko dira.

Acuerdo 697/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar la prórroga en el plazo de ejecución de las actuaciones subvencionadas a la Junta Administrativa de Korres para la ejecución de acciones en el sector de alumbrado exterior local, con el objetivo de reducir el gasto corriente en las entidades locales de Álava y de contribuir a reducir las emisiones de dióxido de carbono.

Foru Gobernu Kontseiluaren 698/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Kontratazio espedientea onestea, prozedura ireki bidez kontratatzeko udalen eta beste toki erakunde batzuen kudeaketa integralerako informatika sistemaren (aplikazio informatikoak eta erabiltzaileentzako arreta zerbitzua edo Call Center delakoa) mantentze lanak, 409.585,00 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne.

Acuerdo 698/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar el expediente de contratación, por procedimiento abierto, del mantenimiento de un sistema informático (aplicaciones informáticas y servicio de atención a usuarios o “Call Center”) de gestión integral municipal y de otros entes locales, con un presupuesto de 409.585,00 euros, IVA incluido.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

DEPARTAMENTO DE POLÍTICAS SOCIALES

Foru Gobernu Kontseiluaren 699/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Onespena ematea Aguraingo

Acuerdo 699/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar la concreción

Udalarekin eguneko arretarako landa zentroa kudeatu eta mantentzeko egindako hitzarmenaren luzapena zehazteari.

de la prórroga del convenio con el Ayuntamiento de Agurain para la gestión y mantenimiento del centro rural de atención diurna.

KULTURA ETA KIROL SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y DEPORTE

Foru Gobernu Kontseiluaren 700/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Onestea Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzaile kargua esleitzea Pablo de Oraá Oleaga Arabako Foru Aldundiko Kirol zuzendariari.

Acuerdo 700/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar la atribución de la dirección-gerencia del Instituto Foral de la Juventud al Director de Deporte de la Diputación Foral de Álava, don Pablo de Oraá Oleaga.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

Foru Gobernu Kontseiluaren 701/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Onestea Delikako Ibilbide Berdearen egokitze lanak Promociones y Pavimentaciones Balgorza SA enpresari adjudikatzea, 199,427,44 euroan, BEZa barne, eta hiru hilabete eta erdiko gauzatze epearekin.

Acuerdo 701/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar la adjudicación a "Promociones y Pavimentaciones Balgorza SA" de las obras de acondicionamiento de la Senda Verde de Delika por importe de 199.427,44 euros, IVA incluido, y plazo de ejecución de 3 meses y medio.

Foru Gobernu Kontseiluaren 702/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Onespena ematea aurrekontu egikaritze eta berresleipenerako epea luzatzeari, Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Arloko Lurralde Planaren erredakzioaren fakturazio epeak doitzearren.

Acuerdo 702/2019, del Consejo de Gobierno Foral de 5 de noviembre. Aprobar la ampliación del plazo de ejecución y la reasignación presupuestaria con el fin de ajustar los plazos de facturación de la redacción del Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas e Itinerarios Verdes en el Territorio Histórico de Álava al ritmo de ejecución del mismo.